

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

3830

AGINDUA, 2020ko irailaren 2koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez 2020. urterako deialdia egiten baita Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egiteko laguntzetarako eta dirulaguntzetarako.

2019ko ekainaren 10ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ekainaren 4ko 83/2019 Dekretua, Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak arautzen dituena. Dekretu horren xedea da honako hauetarako laguntza eta dirulaguntzen araubidearen oinarri erregulatzailleak ezartzea: Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak ezarritako baso-erabileren mugek eragindako galerak konpentsatzeko eta bertan ezarritako konpentsazio-helburuak betetzea bultzatzeko, natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzea helburu duten lurraldea zaintzeko akordioen bidez.

Dekretu honek bi dirulaguntza sorta aurrakusten ditu:

Kompentsatzeko laguntzak: Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean baso-erabileretan ezarritako mugek eragindako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko laguntzak dira.

Zaintzeko dirulaguntzak: natura-ondarea aktiboki zaintzeko jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak dira, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako esparruan lurraldea zaintzeko akordioetan sartutakoak.

2019ko ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, urtero argitaratuko da dagokion deialdi-agindua, artikulua horretan jasotzen den edukiarekin. Ildo horretan, agindu honek, aipatutako dekretuan jasotako mandatua betez, honako hauek arautzen ditu: zer dirulaguntza-sortaren deialdia egiten den, eskaerak aurkezteko eta jarduketak gauzatzeko epeak, esleitzeko eta kuantifikatzeko beste irizpide batzuk, kalifikazio-epaimahaiaren osaketa, sorta bakoitzari zer zenbateko esleitzen zaion, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera deialdirako beharrezkoa den gainerako edukia.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, 2013an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI. Planaren esparruan duen berdintasun-politikako dokumentu programatikoarekin bat etorritik, kontuan hartuko ditu genero-ikuspegia txertatzen duten jarduerak, eta izaera estrategikokotzat joko ditu, Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako irizpideen arabera.

Ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 14. artikulua arabera, natura-ondarearen arloan eskumena daukan zuzendaritzak kudeatuko ditu dirulaguntzak, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko Zerbitzuaren laguntza izango du zeregin horretan. Aipatutako dekretuaren 15.1 artikulua arabera, natura-ondarearen arloan eskumena daukan zuzendaria izango da balorazio-epaimahaiko burua; era berean, balorazio-epaimahaiko kide izango dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-kontserbadorea eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko Zerbitzuari atxikitako pertsona bat.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren Aginduan, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren 2018-2020 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzekoan, jasota dago dirulaguntza hori, bosgarren helburu estrategikoaren barruan –gure natura-ondarea babestea–, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua eskatzen duen bezala, eta agindu horretan adierazitako edukiarekin.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuan ematen zaizkidan eskumenak baliatuz; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluaekin bat etorriz; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenak kontuan hartuta,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da, Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta haren ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak arautzen dituen ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuarekin bat etorriz, 2020 ekitaldirako deialdia egitea, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean ezarritako baso-erabileretan ezarritako mugengatiko konpentsazio ekonomikorako laguntzena eta dirulaguntzena eta bertan ezarritako kontserbazio-helburuak bete daitezela sustatzeko natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko lurraldea zaintzeko akordioak artikulatzeko laguntzena eta dirulaguntzena. Laguntzak eta dirulaguntzak honako sorta hauetan emango dira:

Kompentsatzeko laguntzak.

Zaintzeko dirulaguntzak.

2. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun-finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzen deialdi honetarako aurrekontu-zuzkiduraren zenbateko osoa ehun eta berrogeita hamar mila (150.000) eurokoa da, honela banakatuta:

Kompentsatzeko laguntzak: ehun eta hogeita mila (120.000) euro.

Zaintzeko dirulaguntzak: hogeita hamar mila (30.000) euro.

Sortaren batean esleitutako zenbatekoa ematen ez bada, aurrekontu-zuzkidurarik ez izateagatik esleitu ezin izan den beste dirulaguntza-sortara bideratu ahal izango da.

3. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

4. artikulua.– Eskaerak aurkezteko era.

1.– Agindu honen xede diren laguntzen eta dirulaguntzen pertsona fisiko eskatzaileek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bideetako edozein erabiliz aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak. Eskaerak aurrez hitzordua eskatuta baino ez dira aurkeztuko Zuzenean zerbitzuan.

Eskaerak modu telematikoan ere aurkeztu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1077101 (Konpentsatzeko laguntzak).

2.– Eskatzaileak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluko zerrendan badaude, hala nola zaintzeko dirulaguntzen eskatzaileen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa eskatu beharko dituzte laguntzak.

– Konpentsatzeko laguntzak. www.euskadi.eus/zerbitzuak/1077101.

– Zaintzeko dirulaguntzak. www.euskadi.eus/zerbitzuak/1077102.

Eskaeraren ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» atalean egingo dira: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>.

5. artikulua.– Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskaerarekin batera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritako baldintzetan. Adierazpen horren helburua honakoa izango da: egiaztatzea betetzen diren ala ez Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioaren bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak arautzen dituen ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 5. artikuluan jasotako betebeharrak.

2.– Konpentsatzeko laguntzaren eskatzaileek, artikuluko honen 1. zenbakian aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpenaz gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Baso-ustiategi baten titulartasunaren egiaztagiria, Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioaren bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak arautzen dituen ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 2.1 artikuluko baldintzak betetzen dituen.

Bizkaiko Foru Aldundiaren mozketa-baimena.

Hala badagokio, Baso Kudeaketa Iraunkorrerako Plana, Bizkaiko Foru Aldundian mendien arloan eskumena duen saileko foru-diputatuak onartua.

3.– Zaintzeko dirulaguntzen eskatzaileek, artikuluko honetako 1. apartatutuan aurreikusitako eskaeraz eta erantzukizunpeko adierazpenaz gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoaren estatutuen eta horien aldaketen kopia.

Memoria deskribatzailea, honako hauek behar bezala zehaztuta:

Zaintza-akordioa, Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioaren bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak arautzen dituen ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 2.2 artikuluan deskribatutako baldintzak betetzen dituen.

Akordioaren iraupena, helburuak, jarduteko lekuaren planoa eta mugaketa, epeak, jarduketan irismena eta garapena, jardueraren aurrekontu osoa, partiden arabera banakatuta, eta jarduketak gauzatzeko egutegia.

Hala dagokionean, udalaren hirigintza-lizentzia, eta, hala badagokio, administrazio sektorial eskudunaren nahitaezko baimen eta lizentziak.

4.– Eskatzaileek eskubidea dute 5.2.b) artikuluan (Bizkaiko Foru Aldundiaren mozketza-baimena) eta 5.3.e) artikuluan (udalaren hirigintza-lizentzia) aipatzen diren agiriak ez aurkezteko, bai eta, Urdaibaiko Biosfera Erreserban errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak arautzen dituen ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren, 4.1.a) eta b) artikuluetan aipatzen diren dokumentuak ez aurkeztekoa ere. Hala eginez gero, ordea, ezin dute organo kudeatzaileak bere sare korporatiboaren bidez edo datu-bitartekaritarako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta eginez elektronikoki eskuragarri daudenak beste administrazio publiko batzuei kontsultatzearen edo eskatzearen aurka egon.

Eskatzaileak administrazio arteko kontsultaren aurka egiten badu, eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du, eta hori gabe ez da bere eskaera izapidetuko.

6. artikulua.– Ekintzak gauzatzeko epea.

1.– Konpentsatzeko laguntzen sortan, Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak arautzen dituen ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren 2. artikuluan jasotako kasuak gauzatzeko epeak honakoak dira:

a) Basogintza-proiektua kentzea: Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren arabera baso-erabilera baimenduta ez dagoen lurzoruetan, gehienez ere urtebeteko epean kenduko da basogintza-proiektua.

b) Ingurumen-lehengoratzeko aldaketa: Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planeko nukleo-guneen Gainkategorietan, ziklo ertaineko edo luzeko espezie hostozabal autoktonoak ezartzen direnetan, gehienez ere urtebeteko epean aldatuko da basogintza-proiektua.

c) Basogintza-motaren aldaketa: Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak baso-erabilera baimentzen duen gainkategorietan, basogintza-proiektua aldatuko da, eta gehienez ere urtebeteko epean ezarriko dira ziklo ertaineko edo luzeko espezie hostozabal aloktonoak edo autoktonoak.

2.– Zaintzeko dirulaguntzen sortan, lurraldea zaintzeko akordioen gutxieneko indarraldia urtebetekoa izango da.

7. artikulua.– Esleitzeko irizpideak.

1.– Konpentsatzeko laguntza-sortarako: dirulaguntzak esleitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, eta kasu bakoitzean zehazten den haztapena egingo da.

Lursailen kokapena: gehienez ere 75 puntu (aplikatu beharreko irizpideen % 75a), eskala honen arabera:

Gunearen Gainkategorian sartutako lurzatiaren azaleraren ehunekoa; azaleraren ehunekoa 75 puntuz biderkatuko da.

Gunearen Babesaren Gainkategorian sartutako lurzatiaren azaleraren ehunekoa; azaleraren ehunekoa 50 puntuz biderkatuko da.

Trantsizio Gainkategoriaiko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuko Balio agrologiko Handiko Eremuan sartutako lurzatiaren azaleraren ehunekoa; azaleraren ehunekoa 50 puntuz biderkatuko da.

Natura-ondarea kontserbatzen laguntzeko proposatutako ekintzen ahalmena: gehienez ere 15 puntu (aplikatu beharreko irizpideen % 15a), eskala honen arabera:

2016ko abenduaren 31 baino lehen egindako mozketak. 15 puntu.

2017ko abenduaren 31 baino lehen egindako mozketak. 10 puntu.

2018ko abenduaren 31 baino lehen egindako mozketak. 5 puntu.

2018ko abenduaren 31tik aurrera egindako mozketak. 0 puntu.

Basogintza-kudeaketa Jasangarrirako Plan Tekniko baten arabera mozketak izan dituzten lurrek 10 puntu lortuko dituzte (aplikatu beharreko irizpideen % 10a).

Berdinketa gertatuz gero, lurzorua kalifikazioetan azalera handiena duten lurzatiei emango zaie lehentasuna, eta Gunearen Gainkategoriaiko azalera handienaren arabera ordenatuko dira lehen irizpide gisa, eta Gunearen Babesaren Gainkategoriaiko azalera handienaren arabera irizpide gehigarri gisa.

2.– Zaintzeko dirulaguntzen sortarako: dirulaguntzak esleitzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, eta kasu bakoitzean zehazten den haztapena egingo da.

Lursailak Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean ezarritako kalifikazioaren arabera kokatzea. Gehienez ere 30 puntu (aplikatu beharreko irizpideen % 30a).

Gunearen Gainkategoriaiko sartutako lursailek 30 puntu lortuko dituzte.

Gunearen Babesaren Gainkategoriaiko sartutako lursailek 20 puntu lortuko dituzte.

Trantsizio Gainkategoriaiko sartuta dauden eta baso-erabilera izan dezaketen lursailek 10 puntu lortuko dituzte.

Jarduera-eremu berari buruzko kalifikazio bat baino gehiago badago, puntuazio handienari dagokiona baloratuko da.

Natura-ondarea kontserbatzen laguntzeko proposatutako ekintzen ahalmena, gehienez ere 30 puntu (aplikatu beharreko irizpideen % 30a).

Proiektuaren kalitate teknikoa eta bideragarritasuna, natura-ondarea eta paisaia kontserbatzeko, zaharberritzeko eta hobetzeko egiten duen ekarpenaren arabera, 10 puntu gehienez ere.

Ikerketa- eta jarraipen-planaren kalitate teknikoa eta proiektzioa, gehienez ere 10 puntu.

Komunikazio- eta hedapen-jardueren gizarte-eraginaren ahalmena, gehienez ere 10 puntu.

Lurraldea zaintzeko akordioaren denbora-tartea, akordioak irauten duen urte bakoitzeko 2 puntu; gehienez ere 20 puntu (aplikatu beharreko irizpideen % 20a).

Zaintzeko akordioetan jasotako jarduerak, 20 puntu gehienez ere (aplikatu beharreko irizpideen % 20a).

8. artikulua.– Kuantifikatzeko irizpideak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa honela lortuko da:

1.– Konpentsatzeko laguntza-sortarako, dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean baso-erabileretarako onartutako mugen irismena hartuko da kontuan. Diruz lagundu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko metodologia Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuan aurreikusitakoa da (I. eranskina).

2.– Zaintzeko dirulaguntza-sortarako, kuantifikazioak kontuan hartuko ditu zaintzeko akordioetan jasotako jarduerak, II. eranskinean jasotako diruz lagundu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko metodologiaren arabera.

9. artikulua.– Balorazio-epaimahaia.

Aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko, ebaluazio-organo bat eratuko da. Honako hauek osatuko dute organo hori:

– Batzordeburu gisa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketaren zuzendaria.

– Nicolas Garcia-Borreguero Uribe, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko Zerbitzuko zuzendari-kontserbatzailea.

– Batzordekide gisa, Xabier Albizu Zabala, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko Zerbitzuari atxikitako teknikaria, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketaren zuzendariak izendatua.

10. artikulua.– Ebazpena.

Prozeduraren ebazpena, Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak arautzen dituen ekainaren 4ko 83/2019 Dekretuaren, 16. artikuluan ezarritakoaren arabera eman eta argitaratuko da.

Hala ere, konpentsatzeko laguntzak de minimis laguntzak direnez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 115.2 artikuluan aurreikusitako eragiketen zerrendan agertuko dira.

11. artikulua.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, ebazpena eman eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan berariaz aurreikusi gabeko guztiari dagokionez, honako hauetan jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira: Urdaibaiko Biosfera Erreserban izandako errentagarritasun finantzarioaren galera konpentsatzeko eta zaintza-akordioen bidez ingurumen-kudeaketa egokia egiteko dirulaguntzak arautzen dituen ekainaren 4ko 83/2019 Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea; eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 2a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

I. ERANSKINA

KONPENTSAZIOAGATIKO LAGUNTZEN ZENBATEKOA KALKULATZEA

Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean baso-erabilera onartuei ezarritako mugen irismena, honako egoera hauek kontuan hartuta:

1. multzoa. Ez da onartuko N1.4, N1.5, N5.1 eta T1.A1 kategoriei aplika dakiekeen baso-ustiapenik.

$$V1 = Va(1) - Vd(1) \quad Vd(1) = 0 \quad V1 = Va(1)$$

2. multzoa. Baso-lehengoratzea elementu autoktonoetan oinarrituta, N1.1, N1.2, N1.3, N.2, N.3, N.4, N5.2, B.6 eta T3 kategorietan aplikatzekoa.

$$V2 = Va(2) - Vd(2) \quad Vd(2) = 0 \quad V2 = Va(2)$$

3. multzoa. Hazkunde ertain edo luzeko espezie hostotsuetara mugatutako baso-ustiapena, B.1, B.2, B.3 eta B4.1 kategorietan aplikatzekoa.

$$V3 = Va(3) - Vd(3) \quad Va(3) > Vd(3) \quad V3 > 0$$

Non:

V1, V2, V3= Lurren kapitalizazioaren balioa egoera posible bakoitzerako.

Va= Mugak baino lehenagoko balioa.

Vd= Mugen ondorengo balioa.

2.– Diruz lagundu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko metodologia Lurzoruari buruzko Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuan aurreikusitakoa da, honako zehaztapen hauekin:

a) Kapitalizazio-balioa:

Baso-ustiategietako errenta errearen edo potentzialaren kapitalizazioa, ekoizpen-egitura propioen arabera, honako adierazpen hau aplikatuz egingo da.

$$V = \left[\frac{R1}{(1+r1)^1} + \frac{R2}{(1+r1)^2} + \dots + \frac{Rk}{(1+r1)^k} \right] * \left(\frac{(1+r1)^k}{(1+r1)^k - 1} \right)$$

Non:

V= Kapitalizazio-balioa eurotan (€).

R1, R2, ...Rk= Ustiategiaren urteko errenta 1. urtearen eta k urteko iraupeneko aldizkako zikloen artean, eurotan (€).

r1 = Lurzoruari buruzko Legearen testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriaren 1. paragrafoan finkatutako kapitalizazio mota (7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena).

n= Urte kopurua, $n \rightarrow \infty$ izanda.

b) Gastu-kostua €/ha izango da, Euskadiko 2015-2020 Landa Garapenerako Programako jarduera-moduluetan jasotakoa.

2020ko irailaren 24a, osteguna

- c) Zuraren salmenta-balioa Espainiako Selvicultureen Erakundeen Konfederazioaren (cose) webgunean horri buruz jasotakoaren arabera zehaztuko da, pinuaren kasuan 360 m³/ha-ko eta eukaliptoaren kasuan 200 m³/ha-ko homogeneousazio-koefizientea kontuan hartuta.

3.– Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, *intsinis pinua* eta eukaliptoa ordeztu beharreko espezieen erreferentziatzat hartuko dira, eta hostozabaleko espezieetat, haritz amerikarra ziklo ertainerako eta pagoa ziklo luzerako. *Intsinis pinuaren* eta eukaliptoaren kasuan, tarteko estazio-kalitatea hartuko da (Landa Garapenerako Programaren II. kalitatea).

4.– Zuzenketa globalaren faktorea urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretuaren 8. artikuluko bereko 1.a.i ataleko 1. eta 2. blokeei soilik aplikatuko zaie. Kokapen-faktore globala kalkulatzeko, 1,55 hartuko da balio gisa.

II. ERANSKINA

ZAINZA-MODULUAK

600 euro ordainduko dira hektareako, jabeekiko kudeaketak eragindako gastuengatik, bai eta memoria idazteak eta egin beharreko jarduketek eragindako gastuengatik ere.

Jarduerak modulu hauetan jaso dira:

Basogintzarako eta baso-azalerak sortzeko moduluak.

Espezie-talde	Lehendik dagoen landarediaren tratamendua	Modulua (€/ha)
Ziklo ertaina	Prestaketarik gabe	1.800
	Eskuz	3.000
	Mekanizatuta	2.600
Ziklo luzea	Prestaketarik gabe	2.000
	Eskuz	3.100
	Mekanizatuta	2.650

Itxitura eta babesleetarako moduluak.

Jarduera	Deskribapena	Modulua (€/ ml)
Itxiturak	Itxitura altua ehiza-sarearekin 1,5 m	7,50
Jarduerak	Descripción	Modulua (€/Ud)
Babesa	1,80 m + hesola	3,90
	1,50 m + hesola	3,35
	1,20 m + hesola	2,30

Módulo para eliminación pistas forestales.

Jarduera	Deskribapena	Modulua (€/ ha)
Baso-pistak kentzea	Atzera hondeamakinak dituzten baso-pistak kentzea	2.500